



(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO

DE

31710 ZUGARRAMURDI

(Navarra)

Lapiztegia, 1
Tfno.: 948 59 90 60
C.I.F./I.F.K. P/31/26400 E

ZUGARRAMURDIKO UDALEKO ZERBITZU ANITZETAKO LANGILE BAT KONTRATATZEKO PROTOKOLOA.

ESKAINZA ZENBAKIA: 15/2026/001549

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

-Eskola-graduatu, LH1 edo baliokidea.

- Euskara maila mintzatuan.

- B1 gidabaimena. B kategoriako gidabaimena eduki beharko da eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

- NEZan demandatzaile gisa inskribatuta egotea. Zundaketa egin ondoren bakarrik onartuko dira NEZk bidalitako zerrendan dauden pertsonak.

-Zugarramurdiko Udalarentzat edo Nafarroako Foru Komunitateko beste toki entitate batentzat aurten edo aurreko bi urtetan hiru hilabeteko edo gehiagoko epean lan egin ez izana, "Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzak interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabetuak kontratatzeagatik " dirulaguntza deialdiaren babesean (70E/2026 EBAZPENA, otsailaren 4koa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez baimentzen baita dirulaguntza deialdi honen gastua: "Nafarroako toki entitateentzako dirulaguntzak interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik" eta 251/2018 ebazpena, martxoaren 7koa, 3351E/2020 ebazpena, urriaren 1ekoa, 52E/2021 ebazpena, otsailaren 9koa, eta 458E/2024 ebazpena, martxoaren 10ekoa, Nafar Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 251/2018 ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, aipatutako deialdiaren oinarriak onartu ziren).

BALORATUKO DA:

- Lanpostuarekin lotutako prestakuntza akademikoa eta osagarria.

- Antzeko lanpostuetan izandako lan-esperientzia.

- Lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko prestakuntza edo gaikuntza-baimenak.

CURRICULUM VITAEAREN BAREMAZIOA (20 PUNTU)

1.- PRESTAKUNTZA (GEHIENEZ ERE 6 PUNTU):

- 3 puntu erdi-mailan, espezialitate hauetako edozeinetan:

- Nekazaritza-jarduerak (lorenzaintza) edo baliokidea.
- Eraikuntza eta obra zibila edo baliokidea.
- Elektrizitatea eta elektronika edo baliokidea.
- Fabrikazio mekanikoa (soldadura eta galdaragintza) edo baliokidea.

-Puntu 1 goi-mailako graduan:

- Nekazaritza-jarduerak Nekazaritza-jarduerak (natura- edo paisaia-baliabideen kudeaketa eta antolamendua) edo baliokideak.
- Eraikuntza eta obra zibila edo baliokidea.
- Elektrizitatea eta elektronika edo baliokidea.
- Fabrikazio mekanikoa edo baliokidea.

- Puntu 1 50 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko.

- 0,25 puntu, lanpostuari lotutako 20 orduetik gorako jardunaldi/biltzarretan parte hartzeagatik.

- Puntu 1 lanpostuarekin lotutako gaikuntza-txartel bakoitzeko (soldatzailea, behe-tentsioko argiketaria).

Eskaera-orriarekin batera, dagozkion enpresa-titulu edo ziurtagirien eta/edo lan-bizitzaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

2.- LAN-ESPERIENTZIA (GEHIENEZ 14 PUNTU):

- Mantentze-lanekin lotutako lanpostuetan lanean emandako 6 hilabeteko 2 puntu (lore zaintza, igeltserotza, iturgintza eta soldadura).
- Beheragoko lan-aldiak proportzionalki zatituko dira.

Esperientzia enpresa-ziurtagirien, lan-bizitzaren ziurtagirien edo agiri baliokideen bidez egiaztatuko da.

3.- AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Lanposturako hautagaiak, eskabidearekin batera, NANaren fotokopia, curriculum vitae eta titulu akademikoen, prestakuntza osagarriaren eta enpresa-ziurtagirien eta/edo lan-bizitzaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko ditu.

4.- AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA.

Eskatzaileek 2026ko maiatzaren 5eko 14:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte agiriak, modu hauetakoren baten:

-Aurrez aurre, Zugarramurdiko udaletxeko bulegoan.
-Modu telematikoan, Zugarramurdiko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez:
<https://sedeelectronica.zugarramurdi.es>

Zugarramurdiko Udala Telefonoa: 948599060. Arreta ordutegia: astearte eta ostegunetan 9: 00etatik 14:00etara.

OHARRA: Udalarekin partekatutako Idazkaritza Arloa, astelehen, asteazken eta ostiraletan, 09:00etatik 14:00etara. Telefonoa: 948599034.

EZAGUTZA-PROBA (70 PUNTU)

- Lekua: Zugarramurdiko Udala.
 - Eguna: 2026ko maiatzaren 12an.
 - Ordua: 10:00etan*.
 - Arduraduna: Cederna Garalurreko TGEA



(NAFARROA)

AYUNTAMIENTO

DE

31710 ZUGARRAMURDI

(Navarra)

Lapiztegia, 1
Tfno.: 948 59 90 60
C.I.F./I.F.K. P/31/26400 E

1.- Ezagutza teknikoko proba (gehienez 70 puntu)

- Teoria (test motakoa): 30 puntu

-Praktika eta/edo suposizio praktikoaren garapena: 40 puntu

Eskatutako gutxieneko puntuazioa: ezagutza-proba guzti-guztien % 50

ELKARRIZKETA (10 PUNTU)

- Lekua: Zugarramurdiko Udala.
- Eguna: 2026ko maiatzaren 12*.
- Ordua: Zehazteke.
- Arduraduna: epaimahaia.

* Edozein aldaketa gertatuz gero, behar besteko aurrerapenez jakinaraziko zaie hautagaiei.

EPAIMAHAIA:

Epaimahai kalifikatzaileak kide hauek izango ditu:

-Lehendakaria:Zugarramurdiko Udaleko alkatea

Ordezkoa: Zugarramurdiko Udaleko zinegotzi bat

- Bokala: Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko Cederna Garalurreko Toki Garapeneko Agentea

Ordezkoa: Cederna Garalurreko Toki Garapeneko Agentea.

- Idazkaria: Zugarramurdiko Udalarena

Ordezkoa: idazkariak erabakitzen duena

Epaimahaia hautaprobei aurretik eratu beharko da.

INFORMAZIO GEHIAGO:

Zugarramurdiko Udala, (astearte eta ostegunetan). Tel. 948599060

ayuntamiento@zugarramurdi.es